

HITZALDIAK

LARUNBATA



GEHIENGO NAZIONALAK OLATU ERREAKZIONARIOAREN AURREAN

Oldarraldi erreakzionario eta atzerakoi bete betean kokatzen da mundua. Balio matxista eta arrazistek gero eta leku handiagoa hartu dute azken garaiotan eta gu ez gaude joera hauetatik salbu. Euskal Herria ez da irla bat. Beraz, nola artikulatuko dugu erantzun antifaxista Euskal Herrian?

 **MARKEL RIO**

 **OIHANA ETXEBARRIETA**

 **IÑAKI SOTO**

 **NAIZ GUNEA**

 **11:00**



EUSKARAREN BIHARKO AMETSAK ESNATZEN

Euskararen bilakaera eta egungo egoera ardatz izanik, errealitatera begirako hausnarketa egingo da. Zein puntutan gaude? Zerk funtzionatu du? Ze ahulgune dauzkagu? Eta, batez ere, nondik eta nola ekingo dugu aurrera begira? Euskararen biharko ametsak ez dira berez esnatuko, gaurko erabakiek eta gaurko konpromisoek baldintzatuko dute biharra

 **MARKEL ADIN**

 **GARIKOITZ GOIKOETXEA**

 **KULTUR ETXEA**

 **11:00**



EZIN DA GEHIAGO LUZATU

Azken urteotan euskal preso eta iheslarien aferan emandako aurrera pausuak nabarmenak izan dira, eta honek, testuinguru berri batean kokatzen gaitu. Agertoki berriek sor ohi duten hausnarketa eta erronken inguruan hitz egiteko tarteak izango da.

 **HAIMAR ALTUNA**

 **BEÑAT URIBE-ETXEBARRIA**

 **IDOIA MARTINEZ**

 **KULTUR ETXEA**

 **11:00**



NAZIO ASKAPEN MUGIMENDUA GARA!

Nazio askapen borrokak urte luze bete ditu eta oraindik ere hainbat dira egiteke ditugunak. Ziklo politiko berri baten ataria kokatzen da Euskal Herria eta horrek egokitzapenak, egiteko eta erronka berriak eskatzen ditu. Ziklo politiko berriaren ezaugarritzeaz eta Nazio Askapen Mugimenduaren erronka berrietaz (eta ez hain berrietaz) hitz egiteko izango ditugu gurean Amaiur Egurrola, Xabi Iraola eta Garbiñe Aranburu.

 **XABI IRAOLA**

 **GARBIÑE ARANBURU**

 **AMAIUR EGURROLA**

 **KULTUR ETXEA**

 **12:30**



LGSHEMEN ERABAKI

Greba orokorraren ostean, Lanbidearteko Gutxieneko Soldata Euskal Herrian erabakitzearen garrantziaz jarduteko tarteak izango da. Gazteok honen gaineko erabakimena izateko eskumena nahi dugu. Hemen bizi eta erabaki nahi dugu. Ez digutelako ezer oparituko, gure aldarri eta eskubideen alde borrokatzea dagokigu.

 **JOSEBA UGALDE**

 **AINHIZE MUNIOZGUREN**

 **KULTUR ETXEA**

 **17:00**



BIDAIDE: JATORRI ETA KULTUR ANIZTASUNA EUSKAL EGITASMO NAZIOALAREN ERAIKUNTZAN

Geroz eta gehiago dira haien bizi proiektua garatzeko Euskal Herria hautatzen duten pertsonak. Bide horretan, bidaide gara hemen bizi eta lan egiten dugun guztiok, geure amets, hizkuntza eta kultura bide. Gurea, zapalkuntza ororen gaindipena helburu duen nazio askapenerako mugimendua izanik, ezinbestekotzat jotzen da Euskal Herria elkarrekin pentsatu eta eraikitzeke desira. Bideak berak egingo baikaitu herri, egingo baikaitu gu.

 **PAULA GARCIA**

 **MAIALEN GAGO**

 **JOULUD EL OUTMANI**

 **KULTUR ETXEA**

 **17:00**

